

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Alkatearen otsailaren 5eko 64/2019 Ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez Zigoitiko udalerriko zaindariaren jaietarako dirulaguntza deialdia egiten baita

BDNS (identifikatzailea): 440546

Alkatearen otsailaren 5eko 64/2019 Ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez Zigoitiko udalerriko zaindariaren jaietarako dirulaguntza deialdia, norgehiagoka bidezkoa, egiten baita.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza horiek jaso ahalko dituzte Zigoitiko udalerriko kontzejuek baldin eta legez eraturata eta erregistraturata badaude.

Bigarrena. Xedea

Dirulaguntzaren helburua da Zigoitiko udalerriko herrietako zaindarien jaiak eta erromeriak finantzatzen laguntzea hauetarako:

- Herritarrek parte hartu dezaten herriko jaiak antolatzen eta horietaz gozatzeko.
- Elkarbizitza aberasten laguntzen duten jolas eta kultura jarduerak egitea sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Zaindariaren jaietarako 2016ko apirilaren 20an onetsitako dirulaguntzen ordenantzak jasotzen ditu dirulaguntza horiek emateko oinarri arauak. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 6an argitaratu zen, ALHAOn (64. zk.).

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira: aurkeztu diren eskaerak alderatu egingo dira; deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera, lehentasun hurrenkeran jarriko dira, eta aipatutako irizpideak aplikatuz balorazio gehien lortzen dutenei esleituko zaizkie dirulaguntzak, hurrengo puntuan jarritako mugekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

2020ko aurrekontuko 338.434.000 (Udalerriko kontzejuetako jaietarako dirulaguntza) aurrekontu aplikazioaren kontura finantzatuko dira deialdi honen harira aurkeztu diren eskaerak direla-eta ematen diren laguntzak.

Deialdiko laguntzen zenbatekoa guztira, gehienez, 20.000 euro da. Gehieneko zenbateko hori gutxi gorabeherakoa da; beraz, dirulaguntza emateko, kreditu egoki eta nahikoa izan behar du, dirulaguntza emateko ebazpena onartzen denean. 2020an onetsitako aurrekontu kreditua hasiera baten uste zena baino gehiago bada, organo kudeatzaileak deialdiari gehitu edo ez erabaki ahal izango du, ebazpenaren aurretik dagokion gastu espedientea izapidetutakoan. Horretarako ez da behar beste deialdirik egitea.

Entitate bakoitzeko gehienez lagundu daitekeen zenbatekoa aterako da banatsetik zati berdinetan aurrekontu partida eskaera kopuruan; dena dela, ez da inolaz ere lagunduko justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago.

Aurrekontu partidan kreditu gaindikina badago, diruz lagundu daitekeen gehienezko zenbatekoak gainditu ahalko du emaitza hau: partidaren zuzkidura zati eskaera kopurua.

Hala ere, udalak izapidetze berezia eman ahalko die interes bereziko hainbat programari, baldin eta dirulaguntzen zenbateko osoak ez badu gainditzen Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu aplikazioetan helburu horietarako esleitutako zenbatekoa.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak eta justifikazioa, zazpigarren oinarrian aipatzen diren agiriekin batera, aurkezteko epea 2019ko abenduaren 30era arte izango da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

– Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: froga balioa daukaten fakturak edo kontabilitate agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak).

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez diren ordainagiriak, fakturak, tiketak...:

Emaillea: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ.

Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen entitatea izan behar da).

Gastuaren xedea.

Data.

BEZa: aplikatutako zerga tasa(k).

– Programen aleak, non jasoko den Zigoitiko Udalaren babesak daukatela.

Ondategi, 2019ko otsailaren 5a

Jarduneko alkatea

NEREA TXURRUKA GARATE